

Iurretako Foroaren Akta

Acta del foro de Iurreta

Data/Fecha:	Ordua/Hora:	Lekua/Lugar:
19/12/2017	19:10-20:30	Ibarretxe Kultur Etxean / Casa de Cultura Ibarretxe

Udaletxea/Ayuntamiento	Herritarrak/Ciudadanía	Aholkularitza enpresa/Empresa consultora
<ul style="list-style-type: none"> Iñaki Totorikaguena (Alkatea/Alcalde) Mikel Pagonabarraga (Aparejadorea/Aparejador) Julian Gorospe (Zinegotzia/ Concejál) Liher Aiertzagüena (Zinegotzia/ Concejál) Zorione Fundazuri (Zinegotzia/ Concejál) Itxaso Garamendi (Zinegotzia/ Concejál) Ainhoa Albizuri (Zinegotzia/ Concejál) Xabier Rodríguez (Zinegotzia/ Concejál) 	<ul style="list-style-type: none"> 21 herritar / 21 ciudadanos 	<ul style="list-style-type: none"> Loinaz Azurmendi (Siadeco)

1. Ongietorriak eta foroari sarrera

Alkateak, sarrera modura, hasiera ematen dio Foroari bertaratu egin eta eskerrak eman euren asistentziagatik. Aurrekontu parte-hartzaileen prozedura honetan Iurretako herritarrek erabakiko dute 40.000 euroko partida zertarako erabili adierazten du alkateak.

Jarraian, aholkularitza enpresako kideari hitza ematen dio, prozeduraren inguruko azalpenak eman ditzan. Izan ere, Siadeco enpresaren esku dago antolatuko diren bi saioen dinamizazio teknikoa eta prozedura guztiaren koordinazioa.

2. Partehartze prozeduraren testuinguraketa

Bigarren urtez jarraian martxan jarri du Iurretako Udalak Aurrekontu Partehartzaileen proiektua. Hurbilpen bat egin, prozesuaren inguruko hainbat xehetasun aipatzen ditu aholkularitza enpresako ordezkariak:

- Udal aurrekontuen elaborazioan herritar guztiei partehartzeko aukera ematen dien parte-hartze prozesua da.
- Herritarrak protagonista aktibo bihurtzeko, hausnarketa aktiboa eta solidaritatea sustatzeko, behar errealei irtenbidea bilatzeko, administrazio eta herritarren arteko komunikazioa hobetzeko, etab. balio dute.
- Iurretako Udalak herritarren eskura aurrekontu partida zehatz bat jartzan duen lehen aldia da.

1. Bienvenida e introducción al Foro

La Alcalde, a modo de introducción da comienzo al foro dando la bienvenida y las gracias a los asistentes a la sesión. Subraya que los habitantes de Iurreta, participando en las dos sesiones de presupuestos participativos serán los que decidan a qué se van a destinar 40.000 euros de los presupuestos del Ayuntamiento.

A continuación, cede la palabra a la técnico de la empresa, la cual explica las condiciones del proceso de Presupuestos Participativos. Será la empresa Siadeco la encargada de la dinamización técnica y la coordinación global del proyecto.

2. Contextualización del proceso participativo

Por segundo año consecutivo el Ayuntamiento de Iurreta ha puesto en marcha el proceso de Presupuestos Participativos. A modo de aproximación, el técnico consultor menciona una serie de aspectos importantes en torno al proceso:

- Los presupuestos participativos son una forma para la participación ciudadana mediante la cual todos/as pueden participar en la elaboración del presupuesto municipal.
- Sirven para convertir a la ciudadanía en protagonista activa, fomentar la reflexión activa y la solidaridad, buscar soluciones a necesidades reales, mejorar la comunicación administración-ciudadanía, etc.
- Se trata de la primera experiencia en la que una partida presupuestaria municipal es sometida a decisión ciudadana por parte del Ayuntamiento de Iurreta.

Gogorarazten da baita ere iazko prozesuan bozketa fasera igarotako herritarren eskaerak ondorengoak izan zirela:

- Herriko elkarteek erabiltzeko materiala erosi
- Arandia eta Santa Apolonia arteko bidegorriaren argiztapena hobetu
- Komun publikoak herri-gunean
- Umeentzako jolas-guneak berriztatu
- Errepide generala lur azpitik zeharkatzen duten pasabideen (Ibarretxekoa eta plazakoa) egoera hobetu
- Arraindegiko zabor-ontzien xaflak finkatu
- Bixente Kanpanagako tuneleko muralak berriztea

Lehen bi proposamenak izan ziren bozka kopuru handiena eskuratu zutenak. Gaur egun Udalak jada burututa dauzka bi eskaera horiek.

3. Iurretako Udalaren aurrekontuak

2018 ekitaldirako aurreproiektuan Iurretako Udalak aurreikusita daukan gastu aurrekontua 5 milioi eta 643 mila euro ingurukoa da. Horietatik 2,2 milioi pasatxo langileen gastuei dagokie eta ia 1,9 milioi ondasun arrunt eta zerbitzuen gastuei.

Sarreraren kontzeptuak aztertuta, 2,4 milioi transferentzia arruntei dagokie, zuzeneko zergei 1,5 milioi eta 770 mila euro tasei eta bestelako diru-sarrerei.

Inbertsioetara guztira 590 mila euro bideratzea aurreikusten da eta hortxe daude Aurrekontu Partehartzaileen egitasmo honetara bideratuko diren 40 mila euroak.

4. Prozeduraren auto-arautegia edo jokorako arauak

Aholkularitza enpresako kideak prozeduraren inguruko "arauak" azaltzen ditu:

- Herritarren parte-hartze prozesura jarritako udal aurrekontuaren aurrekontu partida eta izaera:
 - Partida: 40.000 €
- Izaera: inbertsioak. Inbertsioak obra edo herri lanak dira, berriak edo lehendik egindakoen mantenturako egin beharrekoak. Udalak egin ditzakeen izaera iraunkorreko erosketak ere izan daitezke. Inbertsioak, ez dira beraz, ez jarduerak, ez zerbitzuak ezta diru-laguntzak ere.
- Proposamenak iturburu ezberdinak izan ditzakete: lurraldearen (auzoen) eta sektoreen (merkataritza, hirigintza, kultura...) logika uztartzea da egokiena. Ondorengo helburuarekin, ideia edo ekimen orok prozesuaren barnean lekua izango duela bermatzea.

Se recuerda a los asistentes que las propuestas realizadas por los asistentes y sometidas a votación fueron las siguientes:

- Adquisición de material para uso de asociaciones del municipio
- Mejorar la iluminación del tramo de bidegorri entre Arandia y Santa Apolonia
- Aseos públicos en el núcleo urbano
- Renovar las zonas de juego de los niños/as
- Mejorar y acondicionar los dos pasos subterráneos (el de Ibarretxe y el de la Plaza)
- Fijación de las chapas de los contenedores de basura de la pescadería
- Renovar, acondicionar los murales del túnel de Bixente Kapanaga

Las dos primeras propuestas fueron las que obtuvieron mayor número de votos. Desde el Ayuntamiento se indica que dichas peticiones ya se han llevado a cabo.

3. Presupuesto municipal del Ayuntamiento de Iurreta

El presupuesto de gasto previsto por el Ayuntamiento de Iurreta para el anteproyecto del ejercicio 2017 se sitúa en torno a 5 millones 643 mil euros. De dicha partida de gastos, unos 2,2 millones corresponden a gastos de personal y casi 1,9 millones a gastos en bienes corrientes y servicios.

Analizando los conceptos de ingreso, 2,4 millones corresponden a transferencias corrientes, 1,5 millones a impuestos indirectos y 770 mil euros a tasas y otros ingresos.

La cantidad total destinada a inversiones se estima de 590 mil euros, de los cuales 40 mil se corresponden a la partida destinada a este proyecto de Presupuestos Participativos.

4. Auto-reglamento o reglas de juego del proceso

La técnico de la empresa consultora menciona las "reglas de juego" de proceso:

- Partida presupuestaria y naturaleza del presupuesto municipal que se somete a debate de la ciudadanía:
 - Partida: 40.000 €
- Naturaleza: inversiones. Las inversiones son obras, tanto nuevas como de mantenimiento de las que ya hay. Además de obras, las inversiones pueden ser adquisiciones permanentes del Ayuntamiento. No se refiere a actividades, ni a servicios, ni a subvenciones.
- En cuanto a las fuentes de las propuestas, se plantea combinar la lógica territorial (barrios) y sectorial (comercio, urbanismo, cultura...). Con el objetivo de garantizar que cualquier idea o iniciativa disponga de un espacio dentro del proceso.

- Prozesuan parte hartu dezaketen pertsonak dira: Erroldatutako pertsonak + lurretan erroldatuta ez egon arren, bertan jardueraren bat (merkataritza, enpresetan, elkarteren batetan, etab.) garatzen duten pertsonak.
- Parte-hartzaileak identifikatu egingo dira, bileretako partaide modura eta inbertsioetarako proposamen egile modura.
- Proposamenak exekutatzeko epea: urte anitzeko izaera izan dezakete.
- Proposamenak aurkezteko modua:
 - a). Proposamenaren ezaugarri nagusiak bilduko dituen fitxarekin batera aurkeztuko dira.
 - b). Ezinbestekoa ez den arren, proposamenaren egileak identifikatzea aholkatzen da, aurrerago edozein zalantza argitu ahal izateko.
 - c). Partaide bakoitzak proposamen bat baino gehiago egin ahal izango du.
 - d). Fitxak bilerara bertaratuta aurkeztu ahal izango dira.
- Bigarren foro batean proposamenak lehenesteko erabiliko den sistema, berriz, proposamenak baloratu eta zuzenean bozkatzeari izango da.

- Las personas que podrán participar en el proceso son: Personas empadronadas + personas que sin estar empadronadas desarrollan en Iurreta algún tipo de actividad (comercial, empresarial, asociativa, etc.).
- Las personas participantes serán identificadas, tanto como asistentes a la asamblea como proponentes de propuestas de inversión.
- Plazo para la ejecución de las propuestas: podrán tener un carácter plurianual.
- Forma de presentación de las propuestas:
 - a). Será necesario que se acompañen de una ficha que contemple sus principales características.
 - b). No será necesario, sí recomendable que se identifiquen los y las proponentes a fin de aclarar posteriormente cualquier duda.
 - c). Cada participante podrá realizar más de una propuesta.
 - d). Las fichas se deberán presentar presencialmente en la asamblea.
- En el segundo foro, la metodología para la priorización de las propuestas será valorar y votar directamente las propuestas.

4. Herritarren parte-hartzearen emaitzak

Saioa bertaratutako herritarrak taldeka bildu dira jarraian eta aholkularitza enpresak prestatutako fitxak banatu zaizkie talde barruko lana egiten hasteko. 25 minutuz bilduta egon ondoren talde bakoitzeko bozeramaileari eskatu zaio talde horretan ateratako proposamenak aipatzeko.

Proposamenak aztertuz, ondorengoak izan dira jasotako eskaera guztiak:

Proposamenak	
2 (2017)	Oromiñoko eskolan konponketa lanak
9.1. (2017)	Olaburuko tunelaren hobekuntza lanak.
9.2. (2017)	Igogailuaren tunela eta igogailua beraren hobekuntza lanak.
1	Arandiarako bidegorri tartean egokitzapen lanak.
2	Bidegorrian gasolindegitik tanatoriorako tartean zubipetik denda txinatarerantz doan bidea egokitu, bertan dagoen esertzeko bankua lekuz aldatu, zubipera pasa eta farolaren bat ipini.
3	Orokorrean kaleko garbitasuna hobetu.
4	N-634 kaminoak lurretan daukan zatia berrantolatzea.

4. Resultados de la participación ciudadana

Seguidamente, los asistentes a la sesión se han agrupado, y en base a la ficha para la recogida de propuestas elaboradas por la empresa consultora, han comenzado con el trabajo en grupo. Al cabo de 25 minutos, se les ha pedido a los interlocutores de cada grupo que mencionen sus propuestas.

Una vez analizadas, todas las propuestas recogidas son las siguientes:

Propuestas	
2 (2017)	Trabajos de reparación en las escuelas de Oromiño
9.1. (2017)	Mejoras túnel de Olaburu
9.2. (2017)	Mejoras en el túnel del ascensor y en el propio ascensor.
1	Trabajos de acondicionamiento en el tramos del bidegorri a Arandia
2	Acondicionar en el bidegorri en el tramo entre la gasolinera y el tanatorio el camino que va desde debajo del puente al bazar chino, desplazar a debajo del puente el banco existente y colocar una farola.
3	Mejora general de la limpieza de calles.
4	Reordenación de la carretera N-634 en el tramo de Iurreta.

Proposamenak	
5	Askondo-ko karparen "zarataren" murrizketa euria egiten duenean.
6	Artatza eta Plazaren arteko errepidearen konponketa.
7	Kultur Etxean erakusketa ekimenak burutzeko baldintza egokiak beteko dituen areto bat atondu.
14 (2017)	Komun publikoak herri-gunean
8	Askondoko karpak dituen gabeziak konpondu (ixteko sistema sinplifikatu)
9	Berdintasuneko teknikari baten kontratazioa Iurretako Udalarentzat.
10	Haurren jolasleku espazio berriak prestatu auzoetan (Orozketa eta besteak).
11	Ebroko zubiaren argiztapena hobetzea.
12	Bidegorrian zehar eserleku gehiago ipini.
13	Arandia eta Berezi artean oinezkoentzako kaminoa eraiki.
14	Merkatal zentroetara (Lidl, Aldi, Día,...) oinezkoen pasabidea egin.
15	Abadetxea "herriratzeko" tramitazioa martxan jartzeko bideragarritasun azterketa bat egitea.
16	Ekitaldi edo ekimen txikietarako oholtza egoki bat eskuratzea.
17	Maspe eta Bidebarrietako basura bilketarako puntu eta baliabideen berrantolaketa.
18	Maspe eta Bidebarrieta arteko lotura egokitu gasolindegian.
19	Iurretako Udaleko euskara planean inguruko enpresa handienetan eragiteko neurriak aurreikusi eta txertatzea.
20	Ehorztetxekoei adieraztea Udaletik eskelak kalean jarrita uzteko egun kopurua kontrolatu dezatela.

Propuestas	
5	Insonorización o reducción del ruido de la carpa de Askondo cuando llueve.
6	Reparación del camino entre Artaza y la Plaza.
7	Habilitar un espacio expositivo en la casa de cultura con una infraestructura mínima para llevar a cabo exposiciones.
14 (2017)	Aseos públicos en el núcleo urbano
8	Mejorar las carencias de la carpa de Askondo (simplificar sistema de cierre)
9	Contratación de un técnico de igualdad para el Ayuntamiento de Iurreta.
10	Habilitar nuevos espacios para juegos infantiles en los barrios (Orozketa y demás).
11	Mejora de la iluminación en el puente del Ebro.
12	Colocar más bancos a lo largo del recorrido del bidegorri.
13	Comunicación peatonal entre Arandia y Berezi.
14	Habilitar un acceso peatonal a los centros comerciales (Lidl, Aldi, Dia,...).
15	Realizar un estudio de viabilidad para iniciar un proceso de "recuperación" de la casa cural para el pueblo.
16	Adquisición de una tarima funcional para las actividades de tamaño reducido.
17	Reorganización de los puntos y de los recursos para la recogida de basuras en Maspe y Bidebarrieta.
18	Mejorar la conexión entre Maspe y Bidebarrieta en el punto de la gasolinera.
19	Tener en cuenta e insertar en el Plan de Euskera del Ayuntamiento medidas para incidir en las empresas de mayor tamaño situadas en el entorno del municipio.
20	Se pide al Ayuntamiento que subrayen a la Funeraria la importancia de mantener un control adecuado acerca de las esquelas colocadas en la calle.

5. Hurrengo urratsak

Bigarren foroaren data zehazten denean deialdia egingo dela adierazi zaie bertaratuei. Bitartean udalaren ardura izango da herritarrek egindako proposamenen bideragarritasuna aztertzeko txosten teknikoak prestatzea. Bigarren foroan erabakiko dute herritarrek, 40.000 euroko kopururaino iritsiz, guztietatik zein proposamen lehenetsi.

Eta horrela ematen zaio amaiera saioari.

5. Sigüiente fase

Se indica a los asistentes que cuando se decida la fecha de celebración del segundo foro ya se realizará la convocatoria. Para entonces los servicios técnicos del Ayuntamiento se encargarán de elaborar el informe de viabilidad de las propuestas realizadas por los asistentes. En la segunda sesión, los ciudadanos decidirán qué propuestas se priorizarán para ser ejecutadas, hasta llegar al montante económico de 40.000 euros.

Y así, se da por finalizada la sesión.